

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Diputatuen Kontseiluak 2016ko irailaren 27ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

– Erabakiak:

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 614/2016 Erabakia, irailaren 27koa, Diputatuen Kontseiluaren urriaren 11ko ohiko bilkura urriaren 13ra aldatzen duena.

Diputatuen Kontseiluaren 615/2016 Erabakia, irailaren 27koa, onartzen duena Arabako Foru Aldundiaren irizpena, Arabako Batzar Nagusiek ondarearen gaineko zergaren Foru Araua (9/2013 Foru Araua, martxoaren 11koa) aldatzeko foru arau proposamena aintzat hartzeari buruzkoa.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 616/2016 Erabakia, irailaren 27koa, onartzen duena hutsen zuzenketa bat egitea abuztuaren 3ko 499/2016 Erabakiari, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren zerbitzura dauden funtzionarioen plazen 2016rako enplegu eskaintza onartu zuenari.

Diputatuen Kontseiluaren 617/2016 Erabakia, irailaren 27koa, ebazten duena prestakuntza ekipamenduan inbertitzeko laguntzen 2016ko deialdia, martxoaren 15eko 122/2016 Erabakiaren bidez onartua.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 618/2016 Erabakia, irailaren 27koa, onartzen duena aldundi honenkin zorrak dituztenen zerrenda argitaratzea, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren, Arabako zergenen, 92.ter artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten zor eta zehapengatik.

Diputatuen Kontseiluaren 619/2016 Erabakia, irailaren 27koa, jasota uzten duena eta Arabako Batzar Orokorrerara bidaltzen duena otsailaren 11ko 5/2015 Foru Aginduaren betetze mailari buruzko txostena. Foru Arau hori foru sektore publikoaren kontratazioan erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak txertatzeari buruzkoa zen.

Diputatuen Kontseiluaren 620/2016 Erabakia, irailaren 27koa, luzatzen duena telefonozko zerga informaziorako zerbitzu kontratua, External Global Services, SArI martxoaren 6ko 107/2013 Erabakiaren bidez esleitua.

Diputatuen Kontseiluaren 621/2016 Erabakia, irailaren 27koa, kreditu transferentziaren 127/2016 espedientea onartzen duena, 19.275,40 eurokoa, "Jarduerako hainbat gastu" izeneko partida funtsez hornitzeko, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak eskatuta.

Diputatuen Kontseiluaren 622/2016 Erabakia, irailaren 27koa, kreditu transferentziaren 133/2016 espedientea onartzen duena, 13.450,59 eurokoa, "Lankidetzarako laguntzen elkartasun funtsak" izeneko partidarako, nazioarteko elkartasunaz gizartea sentsibilizatzeko proiektuetarako dirulaguntzen 2016 deialdiko diru esleipena handitzeko, Diputatu Nagusiaren Sailak eskatuta.

Diputatuen Kontseiluaren 623/2016 Erabakia, irailaren 27koa, espediente hauek onartzen dituenak: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aurrekontuko balio gabetze bajaren 4/2016

espedientea, gastu zuzenketa teknikoaren 16/2016 espedientea, eta Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontuan kreditu konpromisoa sortzeko 5/2016 espedientea, Txagorritxuko egoitzarako ekipo bat erosteko, 45.000 euroko zenbatekoaz, Gizarte Zerbitzuen Sailak eskatuta.

Diputatuen Kontseiluaren 624/2016 Erabakia, irailaren 27koa, onartzen duena Pablo Uranga pintoreak (Elena Maria Uranga Azpiri emailearen aitona) egindako hiru pintura lanen dohaintza, Arabako Arte Ederren Museoko bildumarako.

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 625/2016 Erabakia, irailaren 27koa, zeinaren bidez ebazten baita uztailaren 19ko 469/2016 Erabakiaren, arte eszeniko eta musikalen 2016ko prestakuntza ekintzetarako laguntzak ematekoaren, kontra ezarritako berraztertze errekurtsoa.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 626/2016 Erabakia, irailaren 27koa, Aldundi honek Aiarako Kuadrilari hondakin tasengatik ematen dion dirulaguntzaren diru esleipena handitzen duena.

Diputatuen Kontseiluaren 627/2016 Erabakia, irailaren 27koa, onartzen duena azaroaren 10eko 636/2015 Erabakiaren bidez esleitu ziren "Espejoko eskuineko ibaiertzeko hondakin urak Gaubeako HUAra isurtzeko lotura proiektu"ko obren azkeneko ziurtapena.

Diputatuen Kontseiluaren 628/2016 Erabakia, irailaren 27koa, onartzen duena azaroaren 20ko 597/2015 Erabakiaren bidez esleitu ziren "Amurrion Lexartzuko andel erregulatzaille berria egiteko eta haren inguruko paisaia leheneratzeko proiektu"ko obren azkeneko ziurtapena.